

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA ETA MERKATU XEDEA

Gure erreferentziazko merkatua ondorengoa da: Adineko pertsonen laguntzeko zerbitzuen merkatua Gipuzkoan.

Merkatu orokor eta zabal hau zatitzeko, ondorengo segmentazio irizpideak erabiliko ditugu:

- 1.-Zaintza non ematen den: etxean edo etxetik kanpo.
- 2.-Zaintza zerbitzuaren zurruntasun maila

	Zurruna	Malgua
ZAINTZA ETXETIK KANPO	Residentziak	Eguneko zentroak
Etxe barruko zaintzaileak ZAINTZA ETXEAN	-Internak -Ordu finkoetan kontratatzen diren zaintzaileak	X

Segmentazio taulan ikusten den bezala, asetu gabe dagoen behar bat dago: etxean zaintzeko orduka doan zerbitzu bat, malgua dena. Horregatik, gure negozio ideia segmentu horretan kokatuko dugu eta horiek izango dira gure merkatu xedea.